

B

BARREN

“Jabeak jabe izaten ikasi behar du”

Igor Castañaresek eta Jose Felix Iglesiasek txakurrak hezitzeko zentrua dute Aiastia-San Migelen



ZURE IRUDIAREN DISEINUA SORTZEN DUGU !

8 urte zuekin gogor eta gogoz lanean.

dgraff
komunikazio **elgi** grafikoa



katalogoak

foiletoak



logotipoak
papeleria
irudi
korporatiboak



Web orriak



kartelak
iragarkiak

INFORMAZIOA ESKA EZAZU
Tel. 943 74 12 59

d-graff@d-graff.com
www.d-graff.com

Santa ana, 8
20870 ELGOIBAR | Gipuzkoa



ELGOIBAR B.H. INSTITUTUA 2008/09 IKASTURTEA

Elgoibar B.H. Institutua
Arregitorre 2
Tel.: 943 74 80 19
E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net

BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak
Zientzia eta teknika
Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak
Humanitateak

Aurrematrikulako datak:
Maiatzaren 5etik 9ra



GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 29an, 19:00etan
IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Maiatzaren 7an, 16:00etan



ELGI INPLANTZA



GOBIERNO VASCO

1.000 urte Bologna eta gero

Irratia eta telebista bezalako komunikabideak suntsituko dituen zibilizazio bat, ionosfera guztia edozein seinale itotzen duen zarata zuri batekin estaliko duena, are gehiago, bere energia behinena aire-espazio osoa tipula geruzen erara armaz estaltzeko erabiliko duen zibilizazio bat ezinezkoa izan bide da. Baina kontuan hartu beharko genuke egoera hau ez dela kontzienteki planeatzen ari, ezta nahita gauzatzen ere; poliki-poliki garatzen ari da, mailaz maila. Ustez, fronte anitzeko gerra bat izan daiteke abiapuntua, planetaren gainazalean lehertuko dena, eta hondamendi totalarekin amenazo egingo duena. Puntu kritiko honetara heltzean, arma karrera planetaren kanpoaldera hedatuko da. Inork ez du nahi izango eguzki-sistema osoa alimaleko guda-eremu bilakatzea, baina hedapenak pausoz pauso abantzatuko du, etsaien mugimenduei erantzunez. Ezerk ezin izango du gerra-eremuaren hedapena galarazi, ezta bake iraunkor bat ezartzeko xedeak ere.

Jokoen teoria darabilen simulazio informatiko bategi zera frogatzen du, halako gerretan, desarme-itu-nekiko dagoen konfiantza faltak negoziazio bidezko akordio baten posibilitatea murrizten duela. "Fede onarekiko" konfiantzarik ezean, akordio batek bi alde-

ek elkarren armamentuak ikuskatzea eskatzen du, norberaren terrenoan etsaiaren adituak sartzen uztea esan nahi duena.

Baina ahalmen militar handiagoa lortzeko karrera nanoteknologiaren bidean sartuko denean, ikuskatze hori ezinezko bihurtuko da. Orduan, armamentu, lehergai eta laborategi ñañoak zailtasun barik ezkutatu ahal izango dira. Momentu horretatik aurrera ezingo da akordiorik lortu, ezta gutxiengorik ere.

Stanislav Lemek abisatu digu: injeneru gutxiago eta filosofo gehiago! Bolognarik ez unibertsitatean!

Alain Ulazia



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com


**"Stanislav Lemek abisatu digu: injeneru gutxiago eta filosofo gehiago!
Bolognarik ez unibertsitatean!"**



**MORKAIKOREN
BLOGA
ESTREINATU
DUGU**

Elgoibartik
mendira begira

www.elgoiBARREN.net



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**



ETAren bonba PSE-EE

Zapatu gaua ez zen lasaia izan Urasandiko bizilagunentzat. ETAk bonba jarri zuen PSE-EEren egoitzan, eta goizaldeko 3:30ean egin zuen eztanda. Ez zen inor zauritu, baina kalte materialak eragin zituen. Zapatu gaueko gertakizuna, eta ondorengo erreakzioak jaso ditu BARRENEk bi orrialdeotan.

Goizeko 2:30ean, pertsona batek DYArak deitu zuen ETAren izenean, PSE-EEren egoitzako bonbaren berri emateko. Ordubete geroago lehergailuak eztanda egingo zuela adierazi zuen, eta halaxe izan zen: 3:30ean egin zuen eztanda. Ertzainek ordurako Urasandi kalea itxita zeukaten, eta ez zen inor zauritu, baina inguruko etxe eta autoek kalte handiak izan zituzten.

Elgoibarko PSE-EEko egoitzari hiru aldiz egin diote eraso urtebetean; azkenengoz, joan zen abenduan. Apur bat gehiago atzera eginez, bi urte eta erdian sei eraso izan ditu, baina horrelakorik bat ere ez.

Atentatuaren ondoren politikari eta herritar asko hurbildu ziren Urasandira, eta astelehen goizean bozeramaileen batzordea bildu zen udaletxean, atentatua gaitzesteko. Aho batez onartu zuten. Besteak beste, ondorengoa adierazten du idatziak: "Udalak eta herritarrek argi daukate ez dutela ETAren aurrean atzera pausurik emango. Euskal Herria beldur-



PSE-EEren egoitza berritzen ari ziren, eta leherketaren ondorioz txikituta geratu da.

tzeko biolentzia erabiltzen dutenek aurrean izango gaituzte politika eginez". Horrekin batera, bakea eta bizikidetzaz lortzeko ahalegin guztia egingo dutela adierazi zuen Udalak, eta Ezker Abertzaleari indar-

keria salatze eskatu zioten, ETArengandik aldentzeko.

Atentatuaren gaineko informazio gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoibarren.net



Zortzi auto izan ziren kaltetuak. 25-30 bizilagunek jasan zituzten kalteak etxean. Politikari ezagun asko etorri ziren atentatua gaitzesteko.

ren egoitzan

ATENTATUAREN ONDORENGO ADIERAZPENAK



Miguel Hernandez

PSE-EEko zinegotzia

“Mina, amorrua eta inpotentzia sentitzen ditut, baina ez dute gurekin amaitzea lortuko, denok akabatu beharko gaituzte horretarako. Demokraziaren alde lanean jarraituko dugu”.



Ovidio Campello

PSE-EEko zinegotzia

“Berriro ere eman digute, baina guk askatasunaren eta herriaren alde lanean jarraituko dugu, ez dugu politika lagako. Ezker Abertzaleari eskatu nahi diot atentatua kondenatzeko”.



Alfredo Etxeberria

Alkatea

“ETAren beste ekintza nazkagarri bat izan da, eta ez du ezer aportatzen. Batzuek euren etxe barruan pentsatu beharko lukete egoera honekin ez goazela inora... PSE-EEko zinegotziei gure babes guztia eskaini nahi diegu”.



Markel Olano

Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatua

“Sozialistei gure babesa eskaintzearekin batera, esan behar da ETAK horrelakoekin ez gaituela zapalduko, ez du lortuko euren planteamendua inposatzea”.



Unai Zulaika

EB-Aralarko zinegotzia

“Bonbaren zaratarekin esnatu nintzen, eta berehala konturatu nintzen sozialisten egoitzan izan zela. Domeka goizean gerturatu nintzen kalteak ikustera eta PSE-EEkoi babesa eskaintzera”.



Jon Peli Uriguren

EAKo zinegotzia

“Betikoa da, eta horrela ez goaz inora; hori ez da irtenbidea. Eraso asko izan dituzte sozialistek azken aldian eta une honetan euren ondoan egotea tokatzen zaigu”.



Javier Nuñez

PPko zinegotzia

“Bizilagunei eta PSE-EEko zinegotziei gure babesa eskaini nahi diegu. ETAK ez daki besterik egiten. Behin betiko bakean eta aske bizitzen lagatzeko eskatu nahi diogu ETARI”.



Urasandiko bizilagun bat

“Beldur handia pasatu dugu, horrela ezin da bizi. Egunen batean denok akabatuko gaituzte”.



Urasandiko bizilagun bat

“Goizeko 2:30etan ertzainak hasi ziren esaten leihoetara ez gerturatzeko, bonba zegoela PSE-EEren egoitzan. 3:30ean egin zuen eztanda, eta besteren bat egongo zen susmoa zegoen. Zorionez, ez zen besterik egon”.



150 lagun inguru bildu ziren egurdiko kontzentrazioan.

Atentatua gaitzesteko bi kontzentrazio egin ziren astelehenean. Eguerdian Plaza Handian eta iluntzeko 19:00etan Urasandiko egoitzaren aurrean. Herritarrez gain, Euskal Herriko politikari asko bildu ziren bi kontzentrazioetan, PSE-EEko zinegotziei euren elkartasuna adierazteko.

TXAKURRAK HEZTEN

Igor Castañaresek eta Jose Felix Iglesias Txefe-k ondo ezagutzen dute txakurraren nahiz jabearen psikologia. Txikitatik dute animalia horrenganako zaletasuna. Gaur egun, txakurrak hezteko zentroa dute Aiastia-San Migel auzoan. Sarritan Manolo Fernandez eibartarra han izaten da, lezioak, laguntza eta aholkuak ematen.

Oier Narbaiza

Zaunka hotsak Aiastia-San Migel auzoko txakurrak hezteko zentroan. Txakurrek kanpotarren bat hurreratu dela igarri dute. Txefe agertu da, antxintxiketan, eta hor egoteko eskatu digu. “Orain etorriko da Igor”. Zaunkak ez dira gelditzen. Bapatean pabilioi barrutik Igor agertu da. “Txakur bat hezten ari gara orain. Hortik ikusiko dugu”.

Ardi-txakur alemaniar gazte bat hezitzen ari dira Txefe eta Manolo. “Alde batetik obediencia irakasten diogu txakurrari eta, bestetik, defentsa”, azaldu du Igorrek. Obedientziaren bidez, jabearen esanak betetzea bilatzen dute, kasu egitea. Defentsa, berriz, baseria, tailerra, etxea edo jabea bera babes-teko irakasten diote. Defentsa lantzeko, txakurra xaxatu egiten dute, haserrea kanporatzeko. “Guk hori ez dugu egiten txakurrek eraso egiteko: defentsa ikasi behar dute”, argitu du Igorrek.

Eremua zaintzen

Gero Igorrek beste txakur bat hartu du, gaztea hori ere. Lasai-lasai dago bere ondolan, zintzo. Hala ere, argazkiak ateratzeko hurreratzean, hortzak erakutsi eta zaunka biziak egin ditu. Bere eremua defenditzen dihardu.

Banaka-banaka, hainbat txakur atera dituzte. Igorrek txakurrak uhalaz heltzen ditu; Manolok gerturatu eta xaxatu egiten ditu, ha-



Jose Felixek eta Igorrek ondo ezagutzen dituzte txakurren portaerak.

rik eta besoan haginka egiten dioten arte (babeztuta darama). Horrelakorik ezagutzen ez duenarentzat harrigarria da horrelako saio bat ikustea. Are harrigarriagoa, saioa amaituta eta txakurra erlaxatutakoan, aske laga ezker, txakur lasai eta erabat esanekoa dela ikustea.

“Txakurrak zuk irakatsiko diozun guztia egingo du”

Bisitariak

Halako batean, Mendaroko bikote bat agertu da. Ikusitakoak harrিতuta laga ditu. Euren txakurrak ez die batzutan kasurik egiten eta soluzioren bat behar dute. Horrelako asko etortzen dira Igor eta Txeferen zentrorra, eskualdetik, Donostiatik edo Bizkai aldetik; txakurrak esandakoari jaramonik egiten ez duelako, etxean gauzak hausten dituelako, jendeari zaunka gehiegi egiten diolako...

Portaera horiek badute konponbiderik, Manoloren arabera. “Heziketarekin konponetzen da hori, teknika batzuk erabiltzen dira”, azaldu du. Azken batean, “txakurrak zuk irakatsiko diozun guztia egingo du”, dio. Hezi-

tzaille on batek txakur-psikologia ez ezik pertsonena ere menderatu behar du. "Jabeak jabe izaten ikasi behar du. Biekin dihardugu. Guk hemen txakurra hezi egiten dugu, baina gero jabeak hona etorri behar du, egokitze-
ra", esan du Txefe-k. "Hemen hezi eta gero jabeak etxean guk esandakoa ez badu betetzen, orduan alferrik da".

Errutina kontua

Txakurrari irakastea automobila gidatzea modukoa da, Manoloren ustez. "Hasieran konplikatu da, baina ohitura hartutakoan, errutina kontua da. Txakurra errutina animalia da. Zazpitan jaikitze irakasten badiozu, zazpitan zu jaikitze zain egongo da".

Txakurrak hezitzeko eta obediencia lantzeko, etxez etxeko zerbitzua ere eskaintzen dute. Arazoak sortzen diren lekuraino joaten da Manolo, bertatik bertara txakur-
ren eta jabearen portaerak zuzentzeko, jabearen batez ere: jendeak, gehienetan, ez du jakiten zelan hezi animalia.

Informatuta egotea garrantzitsua da. "Txakurrak moden arabera hartzen ditu jendeak, arraza bera ezagutu gabe. Txakur-
ren bat hartu aurretik ondo informatu beharra dago". Gero astia hartu beharra dago txakurra gobernatzeko. Azken batean, txakurrari denbora zatitxo bat eskaintzen badiozu, berak bere bizi guztia zuzentzeko emango du.



HOTEL ZERBITZUA

Txakurrak hezitzeaz gain, denbora-
aldi baterako ere txakurrak hartu izaten dituzte Aiastia-San Migel auzoko zentroan. Hotel zerbitzua egun batzuetan kanpora joan behar eta animalia non laga ez duten pertsonentzat pentsatuta dago.

MANOLO FERNANDEZ

Txefek eta Igorrek Manoloren aholkuak jarraitzen dituzte. Eibartar honek 30 urte baino gehiago daromatza txakurrak hezten. Bilaketa, obediencia eta defentsa arloetan aditua, Madril, Alemania, Frantzia, Suitza eta Belgikan hainbat ikastaro egin ditu: bilaketa, droga, lehergailu, obediencia eta defentsaren ingurukoak. Telebista eta zinerako ere lan egin izan du euskal ardi-txakur batekin. Ardi-txakur alemanetan espezializatu da eta defentsarako txakurrak aukeratzen ditu kumeak hazteko.

AHOLKUA

Txakurra erosi aurretik ondo informatzea komeni da.


Kontuan izan zertarako behar den txakurra (lagun egiteko, etxea zaintzeko...).

Norbera zelakoa den ere kontuan hartu (pertsona txiki eta argal batek txakur handi eta indartsua gobernatzeko zailtasunak izango ditu).

Arraza bakoitzak bere ezaugarriak dauzka, baina arraza berean alde handia egoten da txakur batetik bestera. Izaera txikitatik ikusten zaio txakur bakoitzari eta horri begiratu behar zaio aukeratzeko momentuan.

KONTAKTUA

Aiastia-San Migel auzoan dago zentroa, Garate baserriaren gainean. Bertako zerbitzuren bat behar izanez gero, onena alde aurretik telefonoz deitzea: 670 235 254 (Igor) edo 650 231 616 (Jose Felix).



Txefe-ren doberman txakurra Manolorekin. Nazioarteko Txakurren Erreglamendurako prestatzen dihardute. Proba horretan txakurraren hainbat trebatasun neurtzen dituzte. Txefe-k denbora asko eskaini dio txakur hori hezitzeari eta oso-oso esanekoa da.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Hilak 26rako deialdia dela eta

Francok emandako estatu-kolpean 40 izan ziren hildakoak; zaurituek, atxilotuek, urteetan prisionero egondakoek, atzerrira joandakoek, beren ondasunak lapurtutakoek... zenbait gabe jarraitzen dute oraindik. Bere agintaldian ehunka izan ziren atxilotutako eta espetxeratutako elgoibartarrak, torturatuak, jipoituak, espetxean egon zirenak, erbesteratuak, multatuak...

“Erreforma demokratikoa” delakoa hasi zenean baten batzuek, beste batzuen onespenerekin, ordura arte ezagutzen ez ziren sustantziak kontsumitzen hasi ziren: heroina, LSD... 80 gazte inguru hil ziren herrian. Denbora horretan Euskal Herriaren ukazioa etengabekoa izan da. Selektzio propioak sortzeari ez; euskara gizarte osoan zabaltzeari ez; autodeterminazio eskubidea onartzeari ez; Euskal Herriko euskaldunak politikoki elkarrekin jarduteari ez. Guardia Zibilarren eta Polizia Nazionalaren lanari beste batzuk gehitu zitzaizkion: ertzainak. Kolpeak, atxilotetak, manifestazioen kontrako erasoak... beldurgarria. Baina Elgoibarko EAJ-PNV, EA, PSOE eta PPK ahaztu egin nahi dute.

Zein erkarpen egiten dio ekitaldi horrek Euskal Herriak bizi duen egoerari? Bat ere ez. Alderantziz, urte luzeetako tunel beltzera garamatza. Gatazka politikoaren existentzia ukatzen du; negoziazioa eta akordio politikoaren beharra ezabatzen ditu. Irtenbide polizialaren aldeko hautua egiten du, Euskal Herria ukaziora kondenatuz.

Gatazka politikoaren ondorioak gordintasun guztiarekin ari gara pairatzen, oraindik: ehunka elgoibartar eskubide zibil eta politikorik gabe, bake alternatibak eta euskararen alde jarduteagatik espetxean, legez kanpoko alderdi eta antolakundeak, dispersioaren ondorioak jasan behar dituzten preso eta senideak, bizkarzainekin bizi beharra duten pertsonak...

Ezker Abertzalea buru belarri murgildu zen azken elkarrizketa saioan gatazka politikoari konponbide demokratikoa bilatzen. Proposamen politiko errealista aurkeztu zuen mahai gainean: autonomia estatu bat Hego Euskal Herriko lau herrialdeen tza, erabakitze eskubidea bertan biltzen duena; herritarren gehiengoaren atxikimenduz onartuko litzatekeena, Euskal Autonomia Elkartearen batetik, eta Nafarroako Foru komunitatean, bestetik.

Gaurkoz ez da beste proposamen politikorik aurkeztu, betiko konstituzioa ez bada. Gure udaletik datorren proposamena gatazka eta sufrimendua luzatzea besterik ez dakar, eta seguru gaude elgoibartar gehienok ez gaudela horrekin ados.

Elgoibarko Ezker Abertzalea ☛

XV. J. Gurrutxaga krosa

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean, apirilaren 20an, egindako XV. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei, Mekanosa, Bolintxo, Lete, Txiriboga, Muebles Anton, Lanbroa, Castrillejo estankoa, Fadedek ileapaindegia, Iturri taberna, Jai Alai taberna, Gorostiza, Muruamendaraz gozotegia, Antxustegi zeramikak, Osoro za-

patadenda, Garate jantzi denda, Iriondo Kirolak, Iriondo taberna, King-Kong kafeategia, Mugape SA, Sara denda, Harzubi jatetxea, Lombok, Goar aholkularitza, Joyeria Jose, Arauri Lurrindegia, Hair ileapaindegia, Laguarin okindegia, Skandalo, Coviran, Deku bideo club, Estudio PS XXI, Arrieta Jantzidenda, Sagas zapatadenda, Laztana, Farma Apraiz, Foterok Okindegia, Ecenarro, Karkizano, pasteleria Maite, Maidagan jantzidenda, Kontxi, Eizaguirre okindegia, Gestoria Gabiola, Doña Mercedes okindegia, Kala Loradenda, MG Etxea burdindegia, Natur house, Aramburu bitxitegia, Landa harategia, Landa taberna, Kemen belardenda, Luvik oinetakoak, Ugari, Patxi Harategia, Ferpi modak, Confecciones Ion, Arkupe, Gabi jatetxea, Leigar, Ipintza, Aloban inmobiliaria, Estudios Arrillaga, Gabilondo Agencia inmobiliaria, Lizzy, El Gautxo, AJ ileapaintzaileak, Arbeola inmobiliaria, Txuri Beltz taberna, Kartutxo Pub, Mapfre, Lau, Iratxo-Rock taberna, Sua taberna Egotoki elkarte, Mintxeta atletismo elkarte, Lagun Taldea txirindulari elkarte, eta batez ere Elgoibarko Udala, El Diario Vasco, Alzolako Urak, Goki erreformak, Eroski, Netto, Urrategi Elektragaiak Udala Kirol Patronatoa, Goiti, Danobat, Estarta eta Ideko kooperatiberi eta babeslea izan den Kutzari. Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei.

Datorren urtean, apirilak 26an, egingo den XVI. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Krosa Batzordea ☛

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Sugar Etxaniz

Aupa hi, aspaldiko. Azken aldian ez diagu elkar asko ikusi, hitz egin ere apenas, Abiadura handiegian goazak bakoitza bere bidean eta ez gaituk inongo geltokitan kasualitatez ere elkartzen. Erdibideko geltokiak kendu ditugulako akaso, gure eguneroko helmugara ahalik azkarren iristeko. Ba hain zuzen ere, abiadura handiko zerbaitez nahi nik hitz egin aspaldiko partez hirekin, Abiadura Handiko Trenaz. Aurreko asteko BARREneko atal honetan ere aipatu zuan gai hau eta egia esan aurreko astean Eskoriatzan gertaturikoak pozez bete naik: *Euskal Y*-ak okupatuko dituen Eskoriatzako lurren nahitaezko desjabetzen aktak jasotzera joan zituan Sustapen Ministerioko ordezkariak, eta azkenean udaletxera hurbildu zen jendeak modu baketsuz galarrizita buelta erdi eman eta esku hutsik joan zituan bueltan. Beste bataila txiki bat irabazita. Ea Aramaion maiatzaren 6, 7 eta 13an gauza bera pasatzen den.

“AHTren aurka dauden ANVko alkateak kentzea ondo zetorkiok PNVri”

Jauriaritzak gezurrez terrenoa prestatu nahian ziharduk aspaldian kontra daudenen ekintzak kriminalizatuz: multak, kartzela zigorrak (gogoratu elgoibartar bat ere epaiketaren zai zegok)..., baina uste baino gehiago kostatzen ari zaiok. Orain PNV zentsura mozioak aurkezteko prest azaldu duk ANVren aurka. Ederki zetorkiok AHTren aurka dauden herrietako alkateak paretik kentzeko. Baina jendea ez zegok bar-katzeko, egunero nonahi topa litezkek horren zantzuak. Bukatzeko Alberto Agirreazaldegik “AHT egin dezatela nahi badute” idatzi zian aurreko astean atal honetan zer diok horretaz hik, Piru?



Arkaitz Irureta

Bat natok Albertokin Olanoren Gipuzkoa eta berak ezagutzen dabana ezberdiñak dirala diñuanian, mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua bigorrixak dirala, edo AHTk diru guztia eramango dabala esatian, baiña ez “AHT egin dezatela nahi badute” horrekin. Irizixak iritzi, norberak nahi dabana pentsatzia zilegixa dok, eta hari beretik, baita danon diruakin egingo dittuen proiektu baten kontra agertzia ere, nahi dabana egitten utzi aurretik eta kriminalizazio kanpaiñen gaiñetik.

“AHT gelditzia lortuko juagu, baiña bizitzari geltokixak jartzia gehixago kostauko jakuk”

Eskoriatzan gertatutakuakin ni ere poztu nitzuan. Izan ere, horretarako sortu zuan desobedientzia AEBetan esklabutzaren garaixan, duela mende eta erdi, gutxi gorabehera. Helburua hori dok, justizia billatzeko bide berri bat zabaltzia administrazioen aurka modu baketsuan, Gandhi, Mandela, Antimilitaristek, Itoizko solidarioek eta abarrek egin zebe bezela. Makiñen aurrian katiatzian edota Eskoriatzakuan ere, Italiako Val di Sussan egin zebe gauza bera dok; bertatik pasako zan AHT gelditzia lortu juen. Bidia zabalik dagok, ia Aramaixon ere modu baketsuan aurre egitteko aukeria geratzen dan.

Bittartian, dana bizkor egitten saiatzen gaittuk, eta gero horrek sortzen digun estresaren kontra geldik egotera juaten gaittuk. AHT gelditzia lortuko juagu, baiña gure bizitzari geltokixak jartzia gehixago kostauko jakulakuan nagok.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Lan istripuetan 125 lagun hil ziren
iaz Euskal Herrian.

Lanean hartzen diren segurtasun neurriak nahikoak dira?



Jose Villar

55 urte, aurrejubilatua

Ez, errua langileena eta enpresena da. Batzuetan ez dira neurri guztiak hartzen, eta orduan gertatzen dira lan istripuak. Lanera joateak ez luke arriskurik eragin behar.



Begoña Monedero

34 urte, enbasatzailea

Bai, askotan langileek eurek ez dituzte neurri nahikoak hartzen, erosotasunagatik edo uste dutelako eurei ez zaiela pasatuko. Nire lagunak kontuz ibiltzen dira; baina beste asko, ez.



Jose Mari San Martin

42 urte, fresatzailea

Ez, neurriak hobetzen ari dira. Askotan errua norberarena da. Konfiantza asko baduzu, kolpeak izaten dira atzamarretan, batez ere tallerretan pieza handiekin ibiltzean.



Jesus Mari Aizpurua

48 urte, modelista

Ez, lan istripua izan nuen ezkerreko eskuan. Konfiantza kontua izaten da. Baina istripua gertatu arte, arriskuaz ez zara jabetzen. Jendeak kontzientziatu egin beharko luke.

10^{eko}
TXIKIAN



**MANU
SACEDA**

Inpresorea

1. Herriko txokorik gustukoena? Eta zatarrena?

Plaza Handia da herriko txokorik politena. Zatarrena, berriz, King Kongeko alde.

2. Zer falta zaio Elgoibarri?

Deba ibaia tapatzea falta zaio, ibaia zikina dago-eta. Aparkalekuak ere falta zaizkio, zona berde gehiago eta eguraldi txarra egiten duenean umeentzako txikipark bat.

3. Aukeratu egun bat lagun bat gure herrira gonbidatzeko.

Txiki eguna.

4. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, Mintxeta gero eta hobeto dago, eta ordutegia ere zabaldu egin dute. Espazioa txiki geratu baino, ez dute diru nahikorik inbertitu aparatua berritzen.

5. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Gainontzekoak, ez dakit; baina ni, ez. Diruaren truke beharbada bai, baina bestela, ez.

6. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Donostia eta Bilborekin ondo komunikatuta dago, eta etorkizunean Gasteizekin egongo da. Emaztea eta biok, dena den, autoa erabiltzen dugu.

7. Telebistan askotan irten da gure herria, ezta?

Azken aldiak zoritxarrez, bai.

8. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizi izatera? Nora?

Ez, gustura bizi naiz hemen.

9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanpotar batek.

Herria lasai-lasaia ez da. Astegunetan nahikoa lasaia da, baina astebu-kaeretan ez hainbeste.

10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai, oro har, bai; baina eskertuko genuke merkatarirza gune handi bat, umearentzako, bereziki.



Txalo bero bat Instrumentu Taldeen Lehiaketan parte hartu zuten talde elgoibartarrei: "Ez zenuten saria irabazi, baina oso ondo aritu zineten, guri behintzat izugarri gustatu zitzaizgun zuen saioa" →

Txalo bero bat Abuxxiamaikari, Magia Eguna antolatzea-gatik: "Oso ondo pasatu genuen magia egunean. Azkenaldian izan den ekintzarik politenetarikoa izan da, umeez izugarri gozatu zuten magoen ekitaldiekin, eta gainera, eurek ere trukoak egiten ikasi zuten. Segi horrela". ↓



Apirilaren 19an odol emaleen eguna izan zela-eta, herri-tar batek odol emale guztiak txalotu nahi ditu: "Bizitzeko odola ezinbestekoa da, eta badirudi beharra sortzen zai-gunean bakarrik gogoratzen garela. Hala ere, badaude fin-fin odola ematera joaten direnak, eta bertan laguntzen dutenak. Txalotzekoa da. Joan zen astean bost edo sei laguneko koadrila gazte bat joan zen estreinako odola ematera eta, nire ustez, aipatzeko moduko kontua da. Zorionak eman nahi dizkiet odol emale guztiei, eta bide batez, jendea animatu nahi izango nuke odola emateko".



Mendaroko Trinidadeko elizaren aldeko kontzertuan parte hartu zutenei txalo bero bat: "Pasa den ostiralean, Trinidadeko elizaren ondare historiko-kulturalaren alde egindako kontzertuan izan genuen giro ona eta gero, antolatzaileroek, eskerrak eman nahi dizkiegu K104 + Darling Shoes eta The Machine Tools taldeei, IMHri, Mendaroko Gaztetxeari eta agertu ziren neska mutilei. Bildutako 350 euroak Trinidadeko elizan egingo diren obretarako dagoen poltsarako izango dira". ↓



Kirodegiko igerilekuetan sorosle bakarra egoten da eta ez da nahikoa: "Olaizaga kiroldegiko igerilekuetan sorosle eta monitorea lanetan pertsona bakarra aritzen da. Igerileku txikian badin badago igeriketa ikastaroa eskaintzen, ezin du igerileku handia zaindu, eta alderantziz. Nire ustez, ez

da nahikoa. Bi igerilekuak zaindu behar dira, uneoro. Horrez gain, ikastaroren bat baldin badago igerileku txikian, ez didate lagatzen bi urteko semearekin bertan sartzen. Ez dugu trabarik egiten, eta lehen uztan ziguten txoko bat guretzako. Bazkide gara eta guk ere ordaintzen dugu igerilekuaren erabilera".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12



- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK



**Antonio Urkidi
Josefina Fernandez**

URKIDI
AHOLKULARITZA



Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Indarkeriaren biktimak gogoratzeko ekitaldia egingo da bihar, apirilak 26

Berazadi, Duran, Arrese, Exposito, Zabaleta eta Aizpiri izango dira omenduak

ETaren eta Komando Autonomo Antikapitalisten indarkeriaren ondorioz Elgoibarren hildako pertsonak eta kanpoan hil dituzten elgoibartarrak gogoratuko dira bihar, apirilak 26.

Ekitaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da. Plaza Handian egingo diete harrera hildakoen senideei. Ondoren, Giza Eskubideen parkean dagoen Gernikako arborearen azpian lore erramu bat lagako dute eta minutu bateko isilunea egingo da. Gero, udaletxeko pleno aretoan oroigarri bana emango diete senideei eta egun hori gogoratzeko asmoz, Gemma Monrealen koadro bat jarriko dute udaletxean.

Sei lagun gogoratuko dira

1976 eta 1988 urteen artean hildako sei lagun gogoratuko dituzte biharko ekitaldian:

Angel Berazadi: Sigma enpresako gerentea zen Anjel Berazadi hil zuen ETAp-m-k Elgoibarren 1976an. 20 egunez bahituta egon ondoren, buruan tiro bat zuela agertu zen Berazadiren gorpua Azkareteko errepede zaharrean.



Anselmo Duran: 1978. urteko urrian Anselmo Duran izeneko Guardia Zibila hil zuten Komando Autonomo Antikapitalistek. Kuartelera bidean zihoala, Artekaleko eskaileretan tiro egin zioten metrailleta batekin. Zazpi tiro aurkitu zizkioten gorpuztean. Ospitalera eraman zutenerako hilda zegoen.

Jaime Arrese: Elgoibarko alkate izan zen Jaime Arrese. 1980. urteko urrian hil zuten Komando Autonomo Antikapitalistek. Iriondo tabernan kafea hartzen ari zela, buruan tiro egin zioten. Lurrera erori eta bat-batean hil zen. 44 urte zituen, ezkondua eta bi seme zituen.

Jose Exposito: 1985eko abuztuaren 4an Jose Exposito Guardia Zibila hil zuen ETAk. Eguerdi aldean paseatzen zebilela tiro bat jaso zuen buruan eta batbatean hil zen. 62 urte zeuzkan, ezkondua zegoen eta lau seme-alaben aita zen.

Patxi Zabaleta: 1988. urteko ekainean, San Frantzisko kalean zihoala tiro egin zioten Patxi Zabaleta elgoibartarra. Emaztea eta bi seme-alaba utzi zituen.

Sebastian Aizpiri: 1988ko maiatzean hil zuen ETAk Eibarko Chalcha taberna inguruan.

Zaharren etxe berria eraikitzeko proposamena aurkeztu du Udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia hasi da etorkizunerako zaharren egoitzen probintziako mapa berria osatzen, eta Elgoibarko Udalak bere proposamena helarazi dio.

Anbizio handiko proiektua darabil Udalak eskuartean. Alfredo Etxeberria alkateak aurreratu duenez, "zaharren egoitza berri bat egitea baino asmo handiagoko proposamena aurkeztu dugu Diputazioan. Gure nahia, zahar-etxea, eguneko zentrua, psikogeriatrikoa eta babespeko etxearen moduko zerbitzuak konplexu handi batean batzea da". Alegia, gure herria gizarte zerbitzuen alorrean "erreferente" bihurtuko lukeen proiektuari heldu nahi dio Udalak.

Proposamena onartzen ez den bitartean, kokaleku zehatzik ez duela jakinaraziko adierazi du alkateak. Foru Aldundiak hartuko dituen erabakien zain daude orain, eta uda ingururako zeozer jakingo dutela aurreratu du.

Protagonista **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez preso elgoibartarra ospitalean dago, Zaintza Bereziatko Unitatean. Zapatu goizeko presoen kontaktetan falta zela konturatu ziren Soto del Real kartzelako funtzionarioak, eta bere zeldan aurkitu zuten konorterik gabe. Epe motzean hiru aldiz egon da elgoibartarra ospitalean, eta Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak PSOEn kartzela politika salatu du: "Mikeli zerbait gertatzen bazaio, eurak izango dira errudun bakarrak", adierazi du. Mikelen abokatuak Madrilan izan da, baina ez diote informazio gehiago eman.

Berbia **Berdintasuna**

Elgoibarko berdintasun plana eraikitzeko bidean lehenengo pausoak emateko asmoz bildu ziren joan zen astean, apirilaren 16an, hainbat sektoretako hamazazpi emakume, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Goiatz Minguez Udaleko Berdintasunerako Teknikariaren gidaritzapean, ia hiru ordu eman zituzten Elgoibarko emakumeen beharrak aztertzen. Beharrak identifikatzea izan zen lehenengo lana, eta orain berdintasunerako teknikariak herriko diagnostia egingo du, batutako datuekin. Ondoren, lehentasunak ezarri, eta aukera berdintasunerako plana egingo dute.

Argazkia **Atxutxiamaikako kamisetak Saharan**

Desertuko gorriari kolore berdea eman diote Atxutxiko eta GAZ-Tko kamisetek aurtengo Aste Santuan. Amagoia Zubizarreta eta Manex San Martin, Debako familia batekin batera, Tinduf-eko kanpamenduan egon dira (Aaiun probintziako Dora herrian) eta 70 kamiseta eraman zituzten bertako haurren artean banatzeko. Gainera, kamisetak ez ezik, Atxutxiamaikak batutako jostailuak ere eraman eta banatu dituzte.



1973ko Mendaroko kintoak

1973an jaiotako mendarorarrek afaria egingo dute datorren maiatzaren 1ean. Afaria baino lehen, mokadutxoak egingo dute Aizpe Elkartean.. Interesatuak apirilaren 30erako eman behar dute izena Mendaroko Arrats tabernan.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskara Batzordeak "egonaldiak familia euskaldunetan" egitasmoa jarri du martxan. Euskara eta euskal kultura ikasi nahi duten pertsona helduei, familia euskaldunetan egonaldiak egiteko aukera eskaintzea da helburua. Egonaldiak hilabetekoak edo bi hilabetekoak izan daitezke. Informazio gehiago: 943 74 43 66 telefonoan.

Bake epaileen batzarra Mendaron

EAEko bake epaileek Urteko Batzar Nagusia egingo dute domeka honetan, apirilak 27, Mendaroko udaletxean. EAEko 50-60 bake epaile bilduko dira, eta ondoren bazkaria egingo dute.

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan 60 euroko bi txeke banatu dituzte Merkatu Plazako saltzaileek. M^a Pilar Iribarren eta Oihana Agirregomezkorta izan dira irabazleak. Saria erosketa txeketan jaso dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



Esperientzia eleanitzak

Irlandako bi irakasle egon dira IMHn

Gibraltar eta Morehead (Kentucky, Estatu Batuak) herriekin adiskideturik dago Ipar Irlandako Ballymena. Azken urteotan Elgoibarrekin ere lotura egonkortu egin du. Izan ere IMHko irakasle batzuk “Northern Regional College Ballymena” eskolan izan ondoren, hango bi irakaslek bisitatu dute IMH. John McIntock eta Geoff Tweed irakasleek bi aste egonaldi egin dute, eleanitzasun proiektuak gonbidatuta. Hala, ikasle zein iraskaleek diseinuaren eta elektronikaren arloko ezagutzak elkartrukatu dituzte. Irakasle irlandarren esperientzia ezagutu nahi izan dugu, baita euren bi ikasleren eta IMHko irakasleen ikuspegia ere. Mundu globalizatu honetan, egonaldi horiek gero eta ohikoagoak dira. IMH sortu zenetik ere, 70 ikasle inguruk parte hartu dute nazioarteko programetan.

Edozein hizkuntza hitz egiten hasteko ezinbestekoa da lotsa galtzea. Geoff Tweed-ek eta John McIntock-ek ingelesez jardun zuten IMHn igarotako bi aste-etan eta, hasieran, ikasleak ez ziren ingelesez hitz egitera ohitu. “Nahiko lotsati agertu dira ikasleak, eta kosta egiten zitzairen ingelesez hitz egitea. Lan praktikoetan euren gaitasuna gerturatzean, soltatu egin dira. Konfiantza gehia-

go dute bakarka aritzen direnean”, argitu du Geoff Tweed irakasleak. Orain dela bi urte Euskal Herrian izan zen Espainia motorrean zeharkatzeko asmoz eta, orduan, gaztelaniaz hitz batzuk ikasi zituen. “Euskara oso zaila da”, dio. Euren ez dute gaelikoa (Irlandako hizkuntza) hitz egiten. Horregatik, IMHko ikasleek hiru hizkuntzetan moldatzeak meritu baduela aitortzen dute.

John McIntockek Autocad programa irakatsi die Diseinu irakasleei; eta Geoff Tweed-ek zirkuitu elektronikoak, Muntaiak eta Prozesuen Kontrol Estatistikoa Fabrikazioko ikasleei. Ballymenan ere irakasgai berak irakasten dituzte. Bi aste egon dira IMHn hainbat ikasgelatan eskolak ematen, eta ikasleak ez daude esperientzia hori ahaztekotan. “Ingelesezi ari zarenean, arreta handiagoa jartzen duzu,



Ezkerretik eskumara, John McIntock, Geoff Tweed, Josu Abad eta Iratxe Mendicute. Jarrita Marta Garcia-Ariño.



Mikel Arregi IMHko irakaslea



“Erreminta-makinaren sektorean, gu hobeto prestatuta gaude”

Mikel Agirre eta beste hiru irakasle egon ziren pasa den urtean aste bat Ballymenan. Gaur egun IMHko zazpi irakasle daude eleaniztasun proiektu horretan lanean.

Eskertzen da era honetako proiektu batean parte hartzea?

Agian eskertza ez da hitz aiposea. Uste dugu interesgarria dela gure ikasleentzat gai tekniko batzuk ingelesez lantzea. Horregatik pentsatzen dugu ingelesa irakasgai baten barruan erabiltzea dela modu aiposea.

Hizkuntzak, eta bereziki ingelesa, jakitea ezinbestekoa da zuen arloan?

Bai, damutzen gara lehenago ez erabili izateagatik. Elgoibarko enpresek asko saltzen dute atzerrian. Horrekin batera, euren langileak kanpora joaten dira. Gainera, uste dugu, gelan ingelesa erabiltzen badugu, ikasleek beldur hori galduko dutela. Ipar Irlandako irakasleen egonaldiakin hori lortzea posible dela ikusi dugu.

Aldaketa handia nabari duzue kanporean ikusitakoaren eta IMHn ematen denaren artean?

Hango zentroa askoz handiagoa da. Ikasketak orokorragoak dira. Erreminta-makinaren arloan, gu hobeto prestatuta gaude.

eta beharbada kasu gehiago egiten diozu irakasleari. Entzuten duzunaren erdia ulertuta ere, esfortzu handiagoa egiten da haria jarraitzeko”, adierazi du Josu Abad 19 urteko Mantenimendu ikasleak. Josuk, ikastolan zebilela, egin zuen egonaldi bat atzerrian: “Gustura egon nintzen, Liverpoolen”. Iratxe Mendicutek Diseinu ikasketak egiten ditu. “Poliki hitz egiten dute, eta eskertzen da”, argitzen du.

John eta Geoff Ballymenatik gerturatu ziren Elgoibarrera. 30.000 biztanle inguru dituen herria da, “ia Eibarren parekoa”. Oso ezaguna da bertako zapatuko feria. XX. mendearen erdialdetik aurrera, asko garatu dira industria gunek, eta iraskaskuntza zentroak. Michelin eta Gallaher enpresek ere han dute lekua.

“Irakaslea ingelesez ari denean, kasu gehiago egiten diozu”

Josu Abad
IMHko irakaslea

Belfastetik gertu

Ballymena Belfastetik, Ipar Irlandako hiri-burutik, kilometro gutxira dago. Han hezitakoa da Ian Pasley Ipar Irlandako lehen ministro ohia eta 40 urtetan Erresuma Batuen aldeko defentsa sutsua egin duen Alderdi Demokratiko Unionistaren buruzagia. Liam Neeson aktorea ere Ballymenan hezitakoa da, Armaghen jaio bazen ere. Ipar Irlandatik Euskal Herrira etortzea esperientzia interesgarria izan da irakasle irlandarrentzat. “Oso eroso

sentitu gara Elgoibarren. Lasai ibili gara”, diote. Ballymenia eta Elgoibarren artean antzekotasunak topatu dituzte. “Euria sarri egiten du, hemen bezala. Kostaldea ere hemengoaren berdintsua da”, azaldu du Geoffek. Espainiako hegoaldearekin alderatuz, “zuen gidatzeko modua ez da hain erasokorra”.

Euskal Herrian pasatutako bi asteak ez dituzte alferrik galdu. “Soziedade batera joan ginen, eta aparteko haragia jan genuen”, gogoratu dute. Hemengo jatorduetara ere ohitu behar izan dute: “Irlandan goizago afaldu eta bazkaltzen dugu”. Bilbo, Donostia eta Gasteiz ere bisitatu dituzte eta Madrilen ere izan dira. Ballymeniarekin alderatuta, “leku politak”. Eraikin historiko ugari ditu Ballymenak. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Gibraltarreko hiritar asko joan ziren Ipar Irlandako herri horretara.

Eleaniztasun proiektua

Marta Garcia-Ariño, Mikel Arregi, Amaia Garitano, Jon Egaña, Aritz Orbegoza eta Iban Arriaran daude Eleaniztasun proiektuaren barnean. Ekimen hori Lanbide Heziketaren sailburuordetzaren parte da. Irakaleentzat ere esperientzia interesgarria izan da. “Leonardo programaren bitartez joan ginen Ipar Irlandara. Hemendik aurrera ere bultzatu egingo da elkartrukaketa hori”, esan du Garcia Ariñok.

“Momentuz ez dugu ikasleekin egonaldiarik egin, baina ikusi dugu prest egongo zirela. Esperientzia hau positiboa izan da. Datorren urteetara begira eleaniztasuna eta egonaldi horiek areagotu egin behar dira”, argudiatu du Mikel Arregik.

Urtero ikasle batzuk joaten dira atzerria praktikak egitera. Orain arte, 70 ikasle inguru egon dira Leonardo programaren bidez atzerrian. “Uste dugu ekintza honekin ikasle gehiago animatuko direla atzerrian praktikak egitera”, dio Arregik.

Gure berbak

Aditza (14): NOR-NORI-NORK iragana

NOR-NORI-NORK aditzen iragane-ko formak dittugu gaur. NORI hiru-garren pertsona debena.

Esan gendun aurreko batian Elgoibarren ez dirala erabiltzen Bizkai aldeko *DOTSAT*, *DETSAT* erako adizkixak (Plaentxian eta Eibarren, bai), *EUTSI* aditza debena errotzat; Elgoibarren hasten da *DIOT*, *NION* erako aditzen erabileria, ekialdera (Gipuzkoa aldera) erabiltzen dana.

Hori bai, alde horretatik Bizkai alde-ara egitten ez daban arren, beste alde batetik egitten dau Bizkaiko ezaugarri-xekin bat: alokutiboko formak ez dira giputzak, bizkaitarrak baizik: *jauen*, *jauen*, *najauan*, *jaonan*...

- Neutruak: *Liburu bat erosi nion atzo lagunari*; *liburu bat erosi zion harek lagunari*; *liburu bat erosi giñon guk*; *liburu bat erosi ziñon*; *liburu bat erosi ziñuen*; *liburu bat erosi ziuén gurasuak semiari*.

- Hikakuak (giz.): *Liburu bat erosi najauan lagunari*; *hik liburu bat erosi ziuén lagunari*; *liburu bat erosi jauan harek*; *liburu bat erosi giñuan guk*; *liburu bat erosi jauen gurasuak semiari*.

- Hikakuak (emak.): *Liburu bat erosi najanon lagunari*; *hik liburu bat erosi zionan lagunari*; *liburu bat erosi jao-nan harek*; *liburu bat erosi giñonan guk*; *liburu bat erosi jaonen gurasuak semiari*.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1966

Manu Kondek ekarri digu aste honetako erretratu zaharra, baina argazkilaria Luis Etxeberria izan zen. Plaza Txikian aterata dago argazkia, domeka arratsalde baten. Gazte Alaiak eta Patxikanequak koadrilak elkartu ziren futboleko jokatzeko, eta egun hartan Gazte Alaiak taldeak irabazi zuen 3-2. Domeketan ohikoa zen futboleko jokatzeko planak egitea, eta asko korbata eta guzti joaten ziren. Ikusi dezagun zein diren gazte hauek:

Zutik: Anjel M^a Larreategi, Iñaki Mujika, Patxi Zabala, Jose Ramon Casado, Manu Conde, Jesus Vicente Berasaluze, Sebas Suarez, Anjel Atristain, Julio Zubiaurre (†), Anton Azpiazu, Inazio Iriondo.

Makurtuta: Anjel Casado, Iosu Conde, Alberto Ezenarro, Javi Asenjo, Rikardo Rodilla, Jose Anjel Bereziartua eta Rikardo Ruiz.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte

**AISIALDIKO ZUZENDARIAK
BEHAR DIRA UDALEKUETAN
LAN EGITEKO**

- ◀ Ekainean eta uztailean lan egiteko (bi hilabeteko lan-kontratua).
- ◀ Zuzendari titulua derrigorrezkoa da.

Curriculumak bidaltzeko
E-posta: aisia@elgoibarkoizarra.com
Telefona: 943 74 16 26 (Ainara)
Azken eguna: Apirilak 30

PODOLOGIA

Diplomaduna: IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

TRATAMENDUAK:

- ✓ Oinen afekzioen tratamendua.
- ✓ Neurritan egindako plantilak.
- ✓ Oin diabetikoen zainketa.
- ✓ Ordenagailuaren bidezko oinaren azterketa.

ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30 / 15:30 - 19:30

Tlf.: 943 74 16 45

San Frantzisko kalea, 20 behea

Behar duenarentzat etxez-etxeko zerbitzua



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezue!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kredituxarekin ordaintzeko erraztasunak

Umeentzako txotxongilo emanaldia izango da maiatzaren 9an

Kiribilkak “Euskal Herriko itsasoa” ikuskizuna programatu du

Antzezkiuna taldeak “Euskal Herriko itsasoa” antzektuko du Herriko Antzokian maiatzaren 9an 17:30etan. Kiribilka programaren baitan, antzezlanak Euskal Herriko zenbait pertsonaia mitologiko elkartuko ditu: herensugea, lamiak, iparraizea, Hiru Mariak, olatu erraldoiak... Autoreek txotxongilo edo esku-marionetak baliatuz, pertsonaia horiek hainbat lekutan kokatuko dituzte. Elkarrizketa eta gertaera guztiak bost eta hamabi urte bitarteko umeentzako aproposak dira.

Itsasoaren kutsadura

Eneko, bi galtzagorriekin ibiltzen den mutikoa, da protagonista. Itsaso ondoko herri arrantzale batera joan da, bere aitarekin jaiegun batzuk pasatzera. Galtzagorrietako bat lagundu nahi izateagatik, Eneko itsasoan galdu egingo da. Han,



herensuge eta itsasneska bihurtutako lami maitemindua ezagutuko ditu. Itsasoaren kutsadura handia dela eta, Hiru Mariak itsas hobi baten hondoa daude, gaxorik. Enekok, iparraizeak lagunduta, kutsadurarengandik askatu egingo ditu.

Liburuaren Eguneko marrazki eta idazlan lehiaketako sariak banatu zituzten eguaztenean

Liburutegi aurrean, marrazki eta idazlan lehiaketako sariak eman zituzten martitzenean, Liburuaren Egunean. Marrazki lehiaketan, lehehengo mailan Javier Castrok jaso zuen saria, eta Paul Fernandez Campinunek akzesita; bigarren mailan, Aitor Iriondo (saria), eta Alaitz Almortza eta Danel Santarene (akzesita); hirugarren mailan, Oier Agirrezabalaga (akzesita) eta Garazi Aizpurua (saria); laugarren mailan, Koldo Gomez, Leire Rodriguez, Cristina Parras (akzesita) eta Nerea Martinez (saria). Idazlan lehiaketan, bosgarren mailan, Sara Arriola eta Aritz Larruskain (akzesita) eta Jon Etxaniz (saria); seigarren mailan, Garazi Kalzakorta (akzesita) eta Leire Melgosa (saria).



Magia Egunaren arrakasta

Magia tailerra egin zen pasa den zapatuan Magia Egunaren barnean Plaza Handian. Kapela luzeak eta kapa beltzak jarri eta txiki-kienek magia trikimailuak ezagutzeko aukera izan zuten. Ondoren, bi mago ezagunek jardun zuten. Eriz eta Kidam magoek aho zabalik laga zituzten ikusleak. Atxutxia maikak antolatutako eguna arrakastatsua izan zen, umeak eurak protagonistak izan zirelako. Egun batez Harry Potterren dohaiekin amets egin zuten.



Dantzaren Eguna

Bihar, zapatua, Nazioarteko Dantza Eguna dela eta, Triska Dantza Taldeak Plaza Handian egingo den dantza-barra bat eskainiko du. Barra horren helburua, dantzariak eguneroko egiten duten prestakuntza kaleratzea eta erakustea da. Deba, Mendaro, Eibar eta Elgoibartik etorritako 180 dantzariak parte hartuko dute. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da emanaldia, eta 30 minutuko iraupena izango du.

Munduko beste toki askotan bezala, egun horretarako idazten den gutuna irakurriko dute; aurten Gladis Faith Aghulas koreografa hegoafrikarrak idatzitakoa. Dantzaren espirtuak kolorerik ez duela adieraziko da, “bai, ordea, gure barnean dugun batasun, indar eta edertasunaren ahalmena”.

Goi mailako heziketa zikloa eskainiko du Elgoibar BH Institutuak

Haurtzaindegi eta haur-eskoletako hezitzaile eta dinamizatzaileak prestatuko ditu

Datorren ikasturtean, 2008-2009an, goi mailako heziketa-zikloa eskainiko du Elgoibar BH Institutuak. Haur heziketaren inguruko zikloa izango da. Haurtzaindegi eta haur-eskoletako lehenengo zikloetako (0-3 urte) hezitzaileak eta 0-6 urte bitarteko haurren aisialdi programa eta ekin-tzen dinamizatzaileak (ludoteketan, kultur etxetan, liburutegietan, hezkuntza zentroetan...) prestatuko dituzte bertan.

Batxilergo ikasketak behar dira (Humanitate eta Gizarte Zientzietakoek lehenetasuna izango dute), eta lortzen den titulua Haur Hezkuntzan goi-mailako teknikaria izango da. Bi ikasturtetan egingo da zikloa, 2.000 ordu iraungo du, eta horietatik 600 lan-praktikak egiteko izango dira. Lan-munduan etorkizun handia duen zikloa izateaz gain, hainbat



unibertsitateko ikasketak egiteko sarrera zuzena eskaintzen du; izan ere, plazen %30 Lanbide Heziketatik datozen ikasleentzat gordetzen dituzte. Informazio zehatzagoa idazkaritzan edo interneteko

<http://www.elgoibarbhi.net> webgunean aurki daiteke. Izenemate epea ekainaren 2tik 13ra izango da, eta matrikulazioa ekainaren 30etik uztailaren 4ra egingo da.

Atxutxiantxintxikan bitik bost urtera arteko haurrek parte hartu ahal izango dute domekan



Atxutxiantxintxikaren hurrengo ekitaldia domekan egingo da, Antxintxika hasi baino zortzi egun lehenago. Haur Hezkuntzako (2-5urte) umeentzako izango da. Helburua txikienek ere antxintxika egiteko aukera izatea da eta, bide batez, kirolarekin gozatzea. Gainera, herriko kaleetan ere eurak protagonistak izango dira.

Antxintxika egitearekin batera, haurrek petoa osatzeko tailerra, beroketa ariketak, lasterketa, sariak... antolatu dituzte Atxutxiamaika aisia taldeko kideek. 11:30etan plazara hurbilduko den ume orok parte hartu ahal izango du eta ez da alde zuzenik izenik eman behar izango.

Antxintxika eguna, berriz, sei urtetik gorasoentzat izango da soilik. Atxutxiantxintxikarekin, ordea, txikienek ere izango dute lekua oraingo honetan, herrian gero eta erantzun beroagoa duen ekimen horretan.

Jose Manuel Esnal, Trinitate jaietako tanborradako kartelaren irabazlea

Jose Manuel Esnalek irabazi du Trinitate Jaietako Tanborradako kartelaren lehiaketa. Guztira hamahiru kartel aurkeztu dira. Apirilaren 28an egingo da sariematea Kultur Etxeko hitzaldi gelan, seiatan.



Margo eta eskultura erakusketak

Fernando Garcia Rubiaren margoak eta Angel Gil Cuevasen eskulturak egongo dira ikusgai Kultur Etxeko erakusketa gelan, gaurtik maiatzaren 11era arte. Astelehenetik zapatara 19:00etatik 21:00etara irekita egongo da, eta igande eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Jose Gurrutxaga krosean 574 antxintxikarik parte hartu zuten

Hamasei urtetik gorakoetan, 32 lasterkari irten ziren

Elgoibar Ikastolak Jose Gurrutxagaren omenez antolatzen duen krosean inoiz baino antxintxikari gehiagok parte hartu zuten. Plaza Handia txiki geratu zen joan den domekan. Azkenean, 574 lasterkarik eman zuten izena. Izan ere, 16 urteko gora-koek ere parte hartzeko aukera izan zuten lehenengo aldiz. Maila horretan, 32 lagunek parte hartu zuten eta Jose Antonio Ruiz eta Pilar Arriola izan ziren irabazleak. Gaztetxo guztiek jaso zuten domina, oparia eta kamiseta; trofeoak aldiz, 1997. urtetik gorako lehen neska eta mutilentzako izan ziren.

Hamahiru proba

Lasterketa 2000 eta 2001ean jaiotako haurrekin hasi zen. Foru Aldundiak jarritako araudiaren arabera, 350 metro egin behar izan zuten antxintxiketan lehiaketatik kanpo. Helburua partaidetza eta kirol zaletasuna bultzatzea zen. Guztira hamahiru lasterketa egin



ziren eta ibilbidearen luzera ere jaioturtearen arabera adostu zuten antolatzaileek: 1996an 1997an jaiotakoak 950 metro egin egin zituzten; 1995, 1994, 1993 eta 1992. urteetan jaiotakoak, 1.470 metro; 1991. urtetik gora-koek, 4.410 metro.

Juanma Arce gogoan

Trofeoak eman aurretik, Elgoibar ikastolako ordezkariak eskerrak eman zizkieten krosaren 15. edizioan lagundu dieten elkartek, basbesle, laguntzaile, lagunei eta parte hartzaileei, eta baita Udal eta Kirol Patronatuari ere.

Bereziki Juanma Arce gogoratu nahi izan zuten ikastolako kideek: "Arce Gurrutxaga krosaren historiaren parte da eta, sortu zenetik, urtero isilean lanean aritu da. Beraz, Juanma, eskerrik eta txalorik beroenak jaso itzazu hemen gauden guztion partetik".

99an jaiotako (630 metro)

Neskak:	1. Nerea Bastida	2' 29"
	2. Iera Hernandez	2' 32"
	3. Maria Arrieta	2' 34"
Mutilak:	1. Alejandro Beraza	2' 27"
	2. Hodei Ezpeleta	2' 28"
	3. Mikel Garmendia	2' 30"

98an jaiotako (630 metro)

Neskak:	1. Alaitz Egaña	2' 26"
	2. Koro Sabando	2' 27"
	3. Ane Gallardo	2' 33"
Mutilak:	1. Antxon de la Arada	2' 16"
	2. Danel Legorburu	2' 19"
	3. Iker Lopez	2' 22"

97an jaiotako (950 metro)

Neskak:	1. Ainhoa Etxeberria	3' 38"
	2. Nora Kortaberria	4' 02"
	3. Saray Alvarez	4' 11"
Mutilak:	1. Jon Salegi	3' 28"
	2. Xabier Arrizabalaga	3' 39"
	3. Jon Monje	3' 42"

96an jaiotakoak (950 metro)

Neskak:	1. Lorea Santiago	3' 27"
	2. Ane Espilla	4' 16"
	3. Nagore Urkiza	4' 17"
Mutilak:	1. Iñaki Gabilondo	3' 26"
	2. Mikel Gurrutxaga	3' 33"
	3. Andoni Hernandez	3' 40"

95an jaiotakoak (1.470 metro)

Neska:	1. Sara Beristain	6' 01"
Mutila:	1. Ibon Belaustegi	5' 10"

94an jaiotakoak (1.470 metro)

Neska:	1. Nora Santiago	5' 28"
Mutila:	1. Urtzi Intxausti	5' 06"

93an jaiotakoak (1.470 metro)

	1. Asier Gurrutxaga	5' 11"
--	---------------------	--------

92an jaiotakoak (1.450 metro)

	1. Maria Hernandez	6' 54"
	2. Mikel Anakabe	4' 42"

91urtetik gora (4.410 metro)

	1. Pilar Arriola	16' 02"
	2. Jose Antonio Ruiz	12' 22"

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Mendiko bizikletak erabiltzeko zentroa kokatuko dute Mintxetan

Tenis pista eta bi padel kantxa ere jarriko dituzte

Gipuzkoako lehenengo mendiko bizikleta zentroa Mintxetan ipini-ko dute. Euskal Autonomia Erki- degoko hirugarrena izango da Debaba- rreneko BTT zentroa, eta informazio gu- nea Mintxetan kokatuko dute, futbol ze- laiko aldageletan dagoen harreraren. Ha- rrera ordutegia ere uztailetik aurrera ere egongo da martxan. Bertan, ibilbideen informazioa jasotzeaz gain, bizikletak alokatu ahal izango dira, aldagelak eta dutxak ere erabili ahal izango dira eta bi- zikletak garbitzeko leku bat ere prestatu- ko dute bertan. Bizikletak alokatu eta konpontzeko tailer txiki bat jarriko dute Mintxetako aldagelen sarreran. Horreta- rako teiltua bera aprobetxatuko dute.

Zentro horrek, araudiaren arabera, gutxienez 100 kilometroz osatutako ibil- bide seinalizatuak eduki behar ditu. Min- txetakoak 397 kilometro eta 16 ibilbide izango ditu. Adin txikiko umeentzako eta beraien familientzako ibilbide bat ere prestatu dute Mintxetako ingurutik Sallo- benteraino joateko. Natura eta turismoa lotzen dituen ekimen horretan, Eusko Jaurlaritzak (Basquetour), Debegesak eta Debabarreneko udal guztiek parte hartu dute, eta bereziki Elgoibarko Uda- lak eta Udal Kirol Patronatuak. Ibilbideen seinalizazioaz Debegesa arduratuko da eta Udal Kirol Patronatuaren ardura Min-



txetako Informazio gunearen gestioa izango da. Hilaren 29an aurkeztuko dute proiektua Debegesan.

Tenis pista sintetiko berria

Mintxetan tenis pista sintetiko berria jarriko dute, futbol zelaiko aldagelen gai- neko espazioan, igerilekuko aldagelen bitartean. Helburua ekainaren 15erako prest egotea da. Uda ondoren, tenis pis- taren ondoan padeleko bi kantxa egingo dituzte. Proiektu guztiaren aurrekontua 70.000 euro ingurukoa da.

Alberto Iñurrategi, Morkaikoren hurrengo emanaldiko hizlaria

Alberto Iñurrategik "Begiz begi" izeneko ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Musika Eskolako auditorioan maiatzaren 7an, 21:30etik aurrera, Morkaikoren mendi emanaldien barnean.



Kirol udalekuak antolatu dituzte zortzitik hamalau urtera arteko haurrentzako

Udal Kirol Patronatuak zortzitik hamalau urtera arteko umeentzako kirol udalekuak antolatu ditu, ekai- naren 23tik uztailearen 18ra, astele- henetik barixakura, 9:30etatik 12:30etara. Futbola, tenisa, ur jola- sak, mendiko bizikleta, eskalada, patinajea, buzea, arku tiraketa eta beste hainbat kirol egiteko aukera

izango dute kirol udalekuan izena emango duten haurrek.

Izena emateko epea apirilaren 28tik maiatzaren 23ra bitartean irekita egongo da, eta interesa dutenek Olai- zaga kiroldegiko harreraren eman behar- ko dute izena. Kirol Patronatuko bazki- deek 60 euro eta bazkide ez direnek 65 euro ordaindu beharko dituzte.

EMAITZAK

FUTBOLA

S. Pedro 1 – Haundi 1
Antzuola 1 – Elgoibar 2 (erreg.)
Elgoibar 2 – Aloña Mendi 1 (jubentila)
Sporting Herrera 1 – Elgoibar 1 (kadeteak)
Oartzun 0 – Elgoibar 3 (infantil 1)
Aloña mendi 3 – Elgoibar 5 (infantil txiki)
Elgoibar 4 – Hernani 5 (neskak)

XAKEA

Fortuna 1 – Lerun Elgoibar 3 (hirugarren maila)

ARETO FUTBOLA

Kenci 6 – Lagun Onak 4 (euskal liga)
Elgoibar 6 – Anoetako Gazte Asanblada 5 (jub.)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle 21 – Zarautz 22 (sen. neska)
Pneumax 38 – Urola 30 (jub. mutilak)
Bergara 14 – IMH Elgoibar 39 (kad. neska)
IMH Elgoibar 43 – Bera Bera 14 (kad. neska)
Groseko 28 – Cometel 34 (jub. neska)
Cometel 34 – Bera Bera 28 (jub. neskak)
Aterpe 17 – Zarautz 10 (inf. neskak)
Caldereria 9 – Zarautz 24 (inf. neska)
Arrate 18 – Hotel Txarriduna 26 (inf. mutilak)
Ereintza 25 – Bankoa 14 (inf. mutilak)
Bera Bera 17 – C.Astigarraga 21 (inf. neska)

AGENDA

ESKU PILOTA

Barbakua, 25
22:00 Elgoibar – Orio (Herri arteko txapelketa)

ESKUBALOIA

Zapata, 26
11:45 H. Txarriduna – Aloña Mendi (inf. mutilak)
13:00 Bankoa – Bergara (inf. mutilak)
17:00 C.Astigarraga – Zarautz (inf. neskak)
Domeka, 27
9:30 Aterpe – Arrate (inf. neskak)

LANA

ESKAERA

- Mutila, sukaldean laguntzaile, zerbitzari (esperientzia), edo arotz lanak egiteko prest. ☎ **686 545 884**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa laneterako prest. ☎ **696 284 351 / 943 53 01 32**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa laneterako prest. ☎ **678 939 382**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest asteburutan edo gauetan. ☎ **663 338 456**
- Neska, egun erdiz, arratsaldeetan edo gauz umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Neska, nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **671 476 869**
- Neska, astebukaeretan, arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Neska, lan egiteko prest. Gidari baimena dut ☎ **669 154 143**
- Neska, garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ **652 446 228**
- Neska, etxeetan edo hoteletan zerbitzari lan egiteko prest. ☎ **638 726 007**
- Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ **639 984 262**
- Mutila, lan egiteko prest. ☎ **639 984 262 (Breydy)**
- Neska, lan egiteko prest. Sukaldean esperientzia. ☎ **656 781 742 / 688 682 398**
- Neska, orduka lan egiteko prest: eskailerak, tabernak, etxeak garbitu... ☎ **697 702 158**
- Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **610 632 782**
- Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **632 090 180**
- Orduka lan egiteko prest. ☎ **654 610 231**
- Mutila, pintore aprendiz izateko edo igeltsero lan egiteko prest. ☎ **671 439 926**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ **648 210 838**

- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ **616 230 814**
- Neska, edozein lan egiteko prest. Egun osoa ala erdia. ☎ **618 177 283**
- Ingelesko partikularrak ematen dira: ahozkoa eta Business English. ☎ **696 964 069**
- Ingelesko partikularra ematen zaie helduei. Maila guztiak. ☎ **606 733 850**
- Frantses partikularrak ematen dira. ☎ **664 126 273**

ESKAINITZA

- Katalogoak saltzeko lagunak behar dira, komestikoak eta barruko erropa eta bitxiak saltzeko. ☎ **607 824 892**
- Erbitzaria behar da astebukaerarako. ☎ **943 12 73 34**
- Rezola gasolindegian lan egiteko lagun bat behar da. ☎ **943 74 02 41**
- Elgoibarko arandegirako banatzaila behar da. Gida baimena eskatzen da. ☎ **607 468 014**
- Zerbitzaria behar da esperentziarekin. Kontratua eskainiko zaio. ☎ **943 74 87 78**
- Sukaldari laguntzailea eta jantoki eta barrarako zerbitzaria behar dira. ☎ **688 623 668 / 688 623 667**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariek salgai. ☎ **628 115 677**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorren-tzako. ☎ **616 111 603**
- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 74 23 06**
- Pista beltzean garaje marraduna alokairuan. ☎ **665 748 781**
- San Roke kalean, Aterpe azpian, garajea alokairuan. ☎ **943 741 436**

- 16 m² garaje itxia alokairuan. San Roke kaleko 10ean, kiroldegia atzean. ☎ **943 740 118**

MOTORRA


- Citroen Xantia 1.9 TD 92CV salgai. 65.000 km. bakarrik. 4.000 euro. ☎ **664 203 406**
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaizteko bost plaza (lau lo egiteko), sukaldea guztiz ekipatua. Berogailu estatikoa eta bira ematen duen janlekua, dutxa, toldoa eta bizikletak eramateko lekua. 76.000 kilometro. 2003koa. ☎ **658 710 899 / 685 725 840**
- Seat Leon 1.9 salgai. 105 zaldi (kit aerodinamikoarekin). 15.000 kilometro. ☎ **647 626 693**
- Opel Vectra salgai. Ondo zainduta. ☎ **656 793 967**
- Opel Monterrey 4x4 salgai. Hiru ate atzean, engantxea erremolkerako. 3.100 diesel motorra oso egoera onean. Baserrirako edo ehiztariarentzat aproposa. ☎ **646 711 421**

BESTELAKOAK

- Neska behar da logela eta bainua alokatzeko Elgoibarren. ☎ **699 486 458**
- Gutxienez hiru logela dituen pisu baten bila nabil. ☎ **639 882 004**
- Gortinak, ohe erropak, alfonbra txiki edo handi, altzari eta etxerako tresnak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Baratza konpartitu nahi dut. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ **655 723 678 / 943 74 39 19**
- Salgai AMC izena duten sukaldeko bateria edo lapikoak. Pieza solteak ere bai. ☎ **639 390 808**

ABISUAK

- Belarritakoa topatu dut San Lazaro inguruan. ☎ **943 74 41 12**
- Gizonezko erlojua topatu dut. Hilarren 28an, arratsaldean, Erretxindi kalean. ☎ **943 74 16 64**
- Nissan autoko giltzak topatu ditut. Hirukutzetan. ☎ **670 039 572**



BEKAK

BRITAINIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako 20 beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakas-kuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainak 13a.

EKINTZAK

EXPERIMENTALDIA 2008

Zientziaren Kutxagunea. Zientziaren III. Azoka. Apirilaren 25 eta 26an egingo da Donostiako Zientziaren Kutxagunean 11:00etatik 19:00etara.

LANA

SOROSLEAK ETA BEGIRALEAK

Lezoko Kiroldegia. Igeriketako begirale eta igerilekuko sorosleen lan-poltsa osatu nahi dute urte honi begira. Epea: apirilaren 28tik 30era.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

ZORIONAK ZURI



- Zorionak **etxeko hirukoteari!** Nereak 7 urte egingo ditu maiatzaren 2an, eta Leirek eta Amaiak launa maiatzaren 5ean. Muxu handi bana familia guztiaren partez.



- Zorionak **hirukote**, gora zoazte konturatu gabe. Etxeko partez muxuak.



- Zorionak. Izan zorionsitu zuen urtebetetze egunean. Horrela jarraitu jator eta zintzo zuen lagun eta maite zaituzten etxeokoen artean.



• Zorionak, **Alain**, gaur bost urte egingo dituzulako. Etxekoen eta berezki Malenen partez.



• Zorionak, **Almar Garcia**. Muxu asko zure bigarren urtebetetzean familiaren partez.



• Zorionak, **Iñigo**. Atzo egun polita izan zen, ezta? Pedro eta Maixuxen partez.



• Zorionak, **aita**, domekan egun polita pasa dezagula zure opariekin. Muxu asko Urtzi eta Andoniren partez



• Zorionak, **Garazi**, maiztaren 3an lau urte egingo dituzulako. Etxekoen partez belarri tirakada bat.



• Zorionak **Maren**, 3 urte beteko dituzulako. Ondo pasa ta patxo handia etxekoen ta Noraren partez



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 21ean 8 urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Ion**, gaur 10 urte egingo dituzulako. Familiaren eta bereziki Janire eta Maitaneren partez



• Zorionak, **Oskar**, apirilaren 28an 8 urte egingo dituzulako. Familia guztiaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Ane Iriondo**, zazpi urte egin dituzu-eta. Loli, Nerea eta familiaren partez.



• Zorionak, **Naroa**, bost urte egin dituzulako. Etxekoen partez. Txapelduna!



• Zorionak, **Segundo**, bihar 70 urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **Paula Hernandez**, urteak egin dituzu-eta. Etxekoen partez.



• Zorionak, **aibitxa**, ilobaren partez.



• Zorionak, **mutil handi**, atzo urteak egin zenituen-eta. Bereziki Garazi eta Naroaren partez.



• Zorionak, **Nora**, 12 urte egingo dituzu-eta. Familiaren eta bereziki Nerearen partez.



• Zorionak, **Ana**, astelehenean, 9 izango direlako. Muxu handi bat maitia, merezi duzulako.



• Zorionak, **Martin**, bihar lau urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Ales**, zure bosgarren urtebetzean. Laztan handi bat zure familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Iker**, zure laugarren urtebetzean. Muxu handi bat gurasoen partez.



• Zorionak **Marta eta Mikel**, iritsi da zuen eguna. Ondo pasa Elgoibarko familiakoen partez.



• Zorionak **bikote**, euskaltegiko lagunuen partez. Muxu handi bat Izarorentzat.



• Kaixo **bikote**. Urtero bezala, familiako guztien zorionak zuei, zorionak biori eta onda pasa eguna!!! Mila kilo zorion!!!! Heldu da berriro apirilaren 25a!



• Zorionak, **Biki eta Mari Karmen**, datorren igandearen 27, zuen urtebetetzea delako. Ainhua eta Josuren partez.



• Zorionak, **biki marxosoenak**. Oso egun polita pasa dezuela domekan. Familiaren eta lagunuen partez.

OKINDEGIAK

27 igandea **DOÑA MERCEDES**

1 osteguna **EIZAGIRRE**

4 igandea **FOTERO**

FARMAZIAK 24 ORDUZ

25 Etxeberria (Santa Ana)	2 Bidasolo
26 Bidasolo	3 Etxeberria (Santa Ana)
(Goizez Fernandez)	4 Etxeberria (Santa Ana)
27 Fernandez	5 Fernandez
28 Yudego	6 Yudego
29 Zabaleta	7 Zabaleta
30 Etxeberria (Errosario)	8 Etxeberria (Errosario)
1 Yudego	9 Ibañez
2 Bidasolo	

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBAREN.net

25 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Eskrima ikastaroa

Wingsun eskolak antolatuta kiroldegian.

19:00 Erakusketa

Fernando Garcia Rubiaren akrilikoak eta Angel Gil Cuevasen eskulturak.

Kultur Etxean.

22:00 Antzerkia

“Euskara sencilloaren manifestua”.

Kultur Etxeko sotoan.

26 zapatua

16:30 Txirindulari lasterketa

Lagun Taldeak antolatuta, jubenil Mailako

Elgoibar Hiria lasterketa. Irteera: Plaza Handian, helmuga Santa Klaran.

12:00 Ekitaldia

Terrorismoaren biktimak gogoratzeko ekitaldia. Plaza Handian.

18:00 Dantza ikuskizuna

Triska dantza taldea. Plaza Handian.

27 domeka

11:30 Abxutxiantxintxika

Atxutxiamaikak antolatuta, haur krosa. Irteera, Plaza Handian.

16:30 Antzerkia

“Munstroak akatuz” umeentzako antzezla-na. Herriko Antzokian.

30 eguaztena

19:00 Hitzaldia

Haizeak antolatuta, elikadurari buruzko hitzaldia. Kultur Etxean.

6 martitzena

18:30 Jaialdia

Bertsogintza egitasmoaren kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

7 eguaztena

21:30 Ikusentzunezkoa

Alberto Iñurrategik “Begiz begi” mendi emanaldia eskainiko du. Musika Eskolan.

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixifon, 2 - 3. sotoa 943 74 38 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835

9 barixakua

16:00 Bertsolari txapelketa

Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa. Ikastolako frontoian.

17:30 Antzerkia

Kiribilka programaren baitan, "Euskal Herriko Itsasoa" txotxongilo emanaldia izango da.

Herriko Antzokian.

Gure gomendioa


Euskara sencilloaren manifestoa

Gaur, apirilak 25, Kultur Etxeko sotoan

Udal Euskaltegiaren eta AEKren 25. urteurreneko ekintzen barnean, *Euskara sencilloaren manifestoa* antzezlanaren antolatzaileak, Udaleko Euskara Sailak. Bikoteatro taldeak, Mikel Martinez eta Patxo Telleriarekin, taularatu du antzezlanaren gaur gauean, 22:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera doan izango da.



LUDOTEKAKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 25 Sukalde tailerra 18:00-19:00
	ASTELEHENA 28 Pelikula 16:30-19:30
	MARTITZENA 29 Antzerki tailerra 16:30-18:00 / 18:00-19:30
	EGUAZTENA 30 Eskulanak; kamisetak margotzea 17:00-19:00
	EGUENA 1 Jai eguna dela-eta itxita egongo da ludoteka.

GAZTELEKUKO EKINTZAK	
	BARIXAKUA 25 Mahai jolasak 17:00-20:00
	ZAPATUA 26 Topagunea 17:00-20:00
	DOMEKA 27 Gazte zinema: "Los colegas del barrio" 18:00
	MARTITZENA 29 Ordenagailuak 17:00-20:00
	EGUAZTENA 30 Eskulanak: mosaikoak eta pegatina koadroak 17:00-18:30
	EGUENA 1 Jai eguna dela-eta itxita egongo da ludoteka.

OHARRA

Maiatzaren 1eko jai zubia dela-eta, datorren barixakuan ez dugu **BARREN** asteak kaleratuko, eta gure bulegoa itxita egongo da aste guztian. Hurrengo alea maiatzaren 9an jasoko duzue.

«Candida»

Kultur Etxean
(Bideo forum-a)

25, barixakua: 22:00

«Punk Attitude»

Gaztetxean
(Paradisu zinema)

27, domeka: 17:30

«Como la vida misma»

Herriko Antzokian

1, eguena: 19:00/22:15
3, zapatua: 19:00/22:15

«53 dias de invierno»

Herriko Antzokian
(Ongarri zine-kluba)

8, eguena: 22:15

«No es país para viejos»

Herriko Antzokian

25, barixakua: 22:15
26, zapatua: 19:00/22:15
27, domeka: 19:00
28, astelehena: 21:30

«The fild and the fury»

Gaztetxean
(Paradisu zinema)

27, domeka: 19:00

«10.000 B.C.»

Herriko Antzokian

2, barixakua: 22:15
4, domeka: 19:00
5, astelehena: 21:30

«Cronicas de Spyderwick»

Herriko Antzokian

1, eguena: 16:30
4, domeka: 16:30

herritik kanpo



Nerea Iriondo

Ikastera joan zen Nerea Iriondo Elgoibartik Tenerife aldera, eta dagoeneko zazpi urte daramatza Kanarietako irla horretan. Diseinatzaile grafiko lanetan dihardu, eta oso gustura bizi dela aitortu digu. La Laguna izeneko herrian bizi da, irlaren iparraldean. Kontraste handiko irla da Tenerife, eta hegoaldeetik iparraldera sekulako aldea dago.

“Euskal Herrira sarriago joatea gustatuko litzaidake”

Zer dela-eta joan zinen Elgoibartik?

Urte asko neramatzen ikastaro bat egin nahian, eta ikastaro hori Tenerifen zegoela esan zidaten. Zazpi urte daramatzat dagoeneko hemen, eta diseinatzaile grafiko lanetan dihardut, neure diseinu estudioan. Zaletasunak eta lana tartekatzen saiatzen naiz.

Nolakoa da Tenerife?

Tenerifeko iparraldea hegoaldearekin konparatuta oso ezberdina da. Iparraldean negua daukagu, baina uharte gehienetan bezalaxe, normalean eguraldi ona izaten dugu. Horrek egunaz gozatzeko aukera gehiago ematen digu, egunak ordu gehiago dauzkala dirudi eta denetatik egiteko aukera daukat. Gustura bizi naiz, eta ez dakit noiz arte geldituko naizen hemen, baina Euskal Herrira sarriago joatea gustatuko litzaidake.

Nolakoak dira bertako bizilagunak?

Itxuraz oso pertsona alaiak eta lasaiak dira, baina erraz estutzen dira. Hemengo

erritmoa Euskal Herrikoa baino lasaiagoa da, eta oso zaila da horretara ohitzea. Latindar nortasuna dela esango nuke.

Nola gogoratzen duzu Elgoibar?

Herrimin apur bat badaukat, eta familia eta lagun hutsunea sumatzen dut. Pintxoak eta janaria ere botatzen ditut faltan.

Nola ikusten da Euskal Herria kanpotik?

Nahiago dut Euskal Herrira ez begiratzea. Hona albisteak nahiko distorsionatuta helden dira, eta ez dut haserretu nahi izaten. Batzuek uste dute Euskal Herrian etengabeko gerran bizi garela. Besteek, ordea, euskalduna zarela esandakoan, berehala zabaltzen dizkizute etxeko ateak. Denetatik dago.

Zu bisitatzera joango bagina, zer erakutsiko zeniguke?

Lehenengo eta behin Teide sumendia bisitatzera joango ginateteke. Horren ondoren, oraindik hain turistikoak ez diren baina uhartearen benetako edertasuna erakusten duten lekuetara eramango zintuzketen.



Tenoko faroa (Tenerife)



Bulkatu S. Coop.
 Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



CORDON VILARCAHO

San Roke, 7 behean
 Pel. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
 Tel. 943 748 570

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
 Zilaren kolokazioa
 Lakoburu: egar, aluminio, P.V.C.
 Pintura orokorra



Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92

www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

2007-2008 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:

BATXILERGOAK [A eta D]

GIZARTE ZIENTZIAK
OSASUN ZIENTZIAK
ZIENTIFIKO-TEKNIKOAK

Etengabeko Jarduna



Badugu ikasteko leku bat zuretzat!

MAIATZAREN 5etik 9ra

DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara

www.lasalle.es/eibarlasalle
azitain@lasalle.es